

## **IBILTUR Aisia 2025/IBILTUR Ocio 2025**

**Euskadira aisia-arrazoiengatik etortzen diren  
turisten profila eta portaera ezagutzea**

Conocimiento del perfil y comportamiento de  
las y los turistas que visitan Euskadi por  
motivaciones de ocio

2026ko martxoa | marzo 2026

## EZAUGARRIAK

### Lanaren zuzendaritza:

IKERTALDE aholkularitza-taldeak egindako lana

### Talde idazlaria:

Yolanda García Díez (proiektuaren zuzendaria)  
Julio A. Jiménez Arévalo eta Kepa Salaverria  
Folgado (analisi estatistikoko aholkulariak)

### Sortze-data:

2026ko martxo

### Bertsioa

1

### Iruzkina

## CARACTERÍSTICAS

### Dirección del trabajo:

Trabajo realizado por IKERTALDE grupo consultor

### Equipo redactor:

Yolanda García Díez (Directora del proyecto)  
Julio A. Jiménez Arévalo y Kepa Salaverria Folgado  
(Consultores en análisis estadístico)

### Fecha de creación:

marzo 2026

### Versión

1

### Comentarios

Aurkibidea		Índice	
<b>ONDORIOAK</b>	<b>4</b>	<b>CONCLUSIONES</b>	<b>4</b>
<b>AISIA-TURISMORAKO ERREFERENTZIA-ESPARRUA</b>	<b>11</b>	<b>MARCO DE REFERENCIA PARA EL TURISMO DE OCIO</b>	<b>11</b>
<b>1.- EUSKADIRA AISIA-ARRAZOIENGATIK ETORTZEN DIREN TURISTEN PORTAERAREN GAKOAK</b>	<b>16</b>	<b>1.- CLAVES DEL COMPORTAMIENTO DE LAS Y LOS TURISTAS QUE VISITAN EUSKADI POR MOTIVACIONES DE OCIO</b>	<b>16</b>
1.1.- Aisia-turistak zerk erakartzen dituen Euskadira, zein den beraien Euskadiko helmuga eta non hartzen duten ostatu	16	1.1.- Qué atrae a las y los turistas de ocio a Euskadi, cuál es el destino de su viaje en Euskadi y dónde residen	16
1.2.- Aisia-turisten profila	21	1.2.- Perfil de las y los turistas de ocio	21
1.3.- Nola jasotzen duten informazioa, zer garraio bide erabiltzen duten, non hartzen duten ostatu eta zenbat eguneko egonaldia egiten duten	26	1.3.- Cómo se informan, qué medios de transporte utilizan, dónde se alojan y cuántos días dura su estancia	26
<b>2.- TURISTEK EUSKADIN EGIN DITUZTEN JARDUERAK ETA BISITATU DITUZTEN LEKUAK</b>	<b>38</b>	<b>2.- ACTIVIDADES PRACTICADAS Y LUGARES VISITADOS POR LAS Y LOS TURISTAS EN EUSKADI</b>	<b>38</b>
<b>3.- EUSKADIREN BALORAZIOA ETA AURREIKUSPENAK</b>	<b>53</b>	<b>3.- VALORACIÓN DE EUSKADI Y EXPECTATIVAS</b>	<b>53</b>
3.1.- Nola baloratzen dute Euskadi?	53	3.1.- ¿Cómo valoran Euskadi?	53
3.2.- Itzuliko al lirateke Euskadira?	55	3.2.- ¿Volverían a Euskadi?	55
3.3.- Zein dira helmuga lehiakideak?	55	3.3.- ¿Cuáles son los destinos competencia?	55
<b>4.- EGITEN DUTEN GASTUA</b>	<b>61</b>	<b>4.- EL GASTO QUE REALIZAN</b>	<b>61</b>
<b>5.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN PORTAERA BEREIZTEN DUTEN FUNTSEZKO FAKTOREEN ANALISIA</b>	<b>65</b>	<b>5.- ANÁLISIS DE LOS FACTORES CLAVE QUE DIFERENCIAN EL COMPORTAMIENTO DE LAS MUJERES Y LOS HOMBRES QUE VISITAN EUSKADI</b>	<b>65</b>
<b>FITXA TEKNIKOA</b>	<b>73</b>	<b>FICHA TÉCNICA</b>	<b>73</b>

## ONDORIOAK

- 2025ean 4,69 milioi turista izan ziren Euskadin (turismo-aterpetxeetan ostatu hartzen dutenak kontuan hartu gabe). Bolumen horren % 78 oporrenгатik, aisiagatik eta jolas-jarduerengatik hurbildu diren pertsonak dira: **eskaintzak 3,67 milioi turista erakartzen ditu aisia eta oporrak direla-eta.**
- Euskadin, turismo hori definitzen duen ezaugarri nagusia turistaren **aisialdirako motibazioetan nagusitzen den aniztasuna** da. Tamaina esanguratsuko taldeei atxikitako zazpi motibazio aurki daitezke, eta horietako sei bisita guztien % 10etik gorako tamaina duten taldeei lotuta daude: hiriko turismoa, gastronomia, kostaldeko turismoa, kultura-ekitaldiak, *touring-a*, natura eta abentura eta landa-turismoa. Horiek, hain zuzen ere, monolaborantza turistikoaren aurkako eskaintza gisa definitzen dena osatzen dute. Joera hori sendotuz doa denborarekin.
- Hala eta guztiz ere, Euskadiko turistak duen gauzarik garrantzitsuena **interes gurutzatua eta alderdi anitzekoa** izatea da. Interes horren ondorioz, motibazio nagusiak itxuraz bigarren mailakoak baino ez diren beste batzuekin batera datoz, eta egindako jarduera definitzen dute bidaiaren proportzio handian. Eskariak esperientzia-maila zabala bilatzen du, konbinazio ugari, eta horien artean oso maiz egon ohi dira bidaiaren berean gastronomia eta ardoa, hiriko bisita, artea eta ondarea, ekitaldi tradizionalak, kostaldea eta bertako herriak, eta espazio naturalak bisitatzea.
- Ondorioz, jardueraren antzekotasuna, jardueramaila askotarikoa, eta dauden aukeretan murgiltzeko intentsitateetan ñabardura-desberdintasunak bilatzen ditu hasiera batean motibazio nagusi desberdinak dituen turistak.
- **Euskal Herrian gaua ematen duen aisialdi turismoa oinetako erosoak eskatzen dituen turismoa da**, joera duena ondarearen bila egiten diren hiri-ibilbideetarako, museoetara egiten diren bisitetarako, ekitaldi eta tradizioetan murgiltzeko, aparteko herri eta espazio naturalen bila egiten den barne-ibilbiderako; kostaldea eta hiri handiak erreferente nabarmenez dituen, **multiaktiboa eta orientazio anitzekoa**, arrazoi nagusi eta eskaintza osagarri batean oinarritutako ereduetatik aldentzen dena...
- ...eta hori guztia jardueraren erdian gozatzeko eta atseden hartzeko aitzakia on batekin –funtsezko arrazoia, hain zuzen–: **gastronomia. Museo-ezaugarriengatik eta hiri, kostalde eta natura arloko berezitasunengatik lehiakorra den eskaintza bat** –konplexua eta kalitatezkoa izateagatik– **aparteko eskaintza bilakatzea eragiten duen elementua da.**

## CONCLUSIONES

- En 2025 recalcan en Euskadi 4,69 millones de turistas (sin considerar a quienes se alojan en albergues turísticos). El 78% de este volumen son personas que se han acercado por vacaciones, ocio y actividades recreativas: **La oferta atrae 3,67 millones de turistas por ocio y vacaciones.**
- En Euskadi, el principal rasgo definitorio de este turismo viene dado por **diversidad prevalente en las motivaciones de ocio** de las y los turistas. Pueden localizarse hasta siete motivaciones adscritas a grupos de tamaño significativo, seis de las cuales unidas a grupos con un tamaño que supera el 10% del total de visitas: Turismo de ciudad, Gastronomía, Turismo costero, Eventos culturales, Touring, Naturaleza y aventura y Turismo rural apuntalan una oferta que se define como opuesta al monocultivo turístico. Esta es una tendencia que se afianza con el tiempo.
- Con todo, lo relevante del turista en Euskadi es que responde a **un interés cruzado y multifacético**, por el que las motivaciones principales vienen acompañadas por otras solo aparentemente secundarias, y que definen la actividad realizada en una proporción muy significativa del viaje. La demanda busca un rango amplio de experiencia, múltiples combinaciones entre las que tienden a estar muy frecuentemente presentes en un mismo viaje gastronomía y vino, la visita urbana, el arte y el patrimonio, los eventos tradicionales, la costa y sus localidades, y la visita a espacios naturales.
- En consecuencia, similitud de actividad, rango muy variado de éstas, y diferencias de matiz en las intensidades de inmersión en las oportunidades existentes, para turistas con motivaciones principales inicialmente diferentes.
- **El turismo de ocio que pernocta en Euskadi es un turismo de calzado cómodo**, proclive a los recorridos urbanos en busca del patrimonio, a las visitas museísticas, a la inmersión en eventos y tradiciones, a la ruta interna en busca de localizades y espacios naturales singulares, con la costa y las grandes ciudades como referentes destacados, **multiactivo y multi orientado**, alejado de modelos centrados en un motivo principal y una oferta complementaria...
- ...y todo ello con una buena excusa -una razón central de hecho- para el disfrute y reposo entre la actividad: **la gastronomía. Es el elemento que hace que una oferta competitiva** -por compleja y de calidad- en sus rasgos museísticos y su singularidad urbana, costera y naturalística, **devenga en una oferta única.**

- **Gastronomia da bisiten arrazoi nagusia, baita Euskadiko turismo-jarduera osoaren ardatz nagusia ere.**

Eskaintzaren elementu bereizgarri bat da, zuzeneko zein zeharkako erakargarri gisa balio duena. Bere horretan, gainerako eskaintzaren mikrokosmos bat da. Pintxoak “ezinbestean” probatu beharrekoak dira turistek % 95entzat. Eta esperientzia gastronomikoen bilaketa turismoaren % 41en artean zabaltzen da. Eguneko menuen bidez (% 36) bilatzen dute edo eskaintzaren beste aukera finago batzuen bidez, hala nola hotel-establezimenduei lotutako jatetxeen bidez (% 26), erretegi espezializatuen bidez (% 24), egile-sukaldaritzaren bidez (% 19), sagardotegien bidez (% 14) edo kanpoko kalitate-ziurtagiriak dituzten jatetxeen bidez (% 8).

- **Euskadi hainbat nitxo-turismo batera erakartzeko gai da**, aldi berean mota horretako turista zentratuari eta turista orotariko eta polifazetikoaren hedapen-beharrei erantzuten dion kalitatezko eskaintza batean. Landa-turismoak, *wellness*-ak, kirol-turismoak –mendia eta surfa erreferentziatzen hartuta–, erosketek, jai herrikoiek edo espezializatutako goi-mailako eskaintza gastronomikoak sakontasuna eta turistak ekartzen dituzte, eta **tresna espezifikoak eskura jartzeko aukera ematen dute, hala nola paketeak, garraioa edo zerbitzu egokitu eta espezializatuak.**
- Jardueraren eta interesen sektore-aniztasunean iragatearen ondorioetako bat **turismoa pixkanaka-pixkanaka desestacionalizatuta iristea izan da**. 2019az geroztik, prototipikoki oportetakoak ez diren aldietan iritsitakoak (Aste Santua, Gabonak eta uda) gainerakoak baino gehiago dira (% 51); 6 puntu egin dute gora aldi horretan, eta 9 puntu 2017a erreferentziatzen hartuz gero. Udak iritsieren % 34 biltzen ditu, 2019an baino ehuneko 2 puntu gutxiago.
- **Helmugek ere logika horri erantzuten diote: ostatu-gaua deszentralizatuta eta oso banatuta dago**, eta ontzi komunikatuen logikarekin azaltzen da, zeinaren bidez ostatu-gauak jarduera-puntua zati batean baino ez baituen definitzen. Ostatu-gaua igartzeko puntuaren hautaketa motibazio nagusien eta bigarren mailakoen aldaketa txikiak oreka horrek zehazten du (baita libre egotearen eta prezioaren logikak ere). Hori horrela, ostatu-egitura duten herrietan gaua igarotzen duten pertsonen jardueraren zati bat finkatzea bilatzen duten tokiko eskaintzak garatzeko aukerak sortzen dira, baita jarduera-eremu geografiko zabalak eratzeke joera ere.

- **La gastronomía es tanto motivo principal de visita como hilo vertebrador de toda la actividad turística en Euskadi.** Se trata de un elemento diferencial de la oferta que sirve como atractor tanto directo como indirecto.

En sí misma, es un microcosmos del resto de la oferta. Los pintxos son un “indispensable” que experimenta el 95% de los y las turistas. Y la búsqueda de experiencias gastronómicas se extiende entre un 41% del turismo. Bien a través de menús del día (36%) o de otras oportunidades más refinadas de la oferta como los restaurantes ligados a los establecimientos hoteleros (26%), asadores especializados (24%), cocina de autor (19%), sidrerías (14%) o restaurantes con sellos certificaciones externas de calidad (8%).

- **Simultáneamente, Euskadi es capaz de atraer diversos turismos de nicho**, en una oferta de calidad que da una respuesta al tiempo a esta clase de turista centrado, como a las necesidades de expansión del turista generalista y polifacético. El turismo rural, el wellness, el turismo deportivo - con la montaña y el surf como referentes-, compras, fiestas populares, o también la oferta gastronómica altamente especializada añaden profundidad y turistas, y **proporcionan una oportunidad para la puesta en mano de herramientas específicas como paquetes, transporte o servicios adaptados y especializados.**
- Una de las consecuencias del tránsito en la multivectorialidad en la actividad y los intereses es una **progresiva desestacionalización de las llegadas turísticas**. Desde el año 2019, las llegadas en periodos no prototípicamente vacacionales -semana santa, navidades y verano- superan ya al restante (51%), habiendo crecido 6 puntos porcentuales en este periodo, y 9 puntos si se toma como referencia 2017. El verano recoge un 34% de las llegadas, 2 puntos porcentuales menos que en 2019.
- **También los destinos responden a esta lógica: la pernocta está descentralizada y altamente repartida**, y se dispone en una lógica de vasos comunicantes por los que la pernocta define solo parcialmente el punto de actividad. La elección del punto de pernocta viene determinada por este equilibrio de pequeñas variaciones en las motivaciones principales y secundarias (además de las lógicas de disponibilidad y precio). De esta manera, se crean oportunidades para el desarrollo de ofertas locales que busquen fijar parte de la actividad de las personas pernoctantes en las localidades con estructura de alojamiento, incluso bajo esta tendencia a conformar amplios ámbitos geográficos de actividad.

- **Jardueraren eta banaketaren logika horren arabera, Bilbo (% 29) eta Donostia (% 24,5) dira gaua igarotzeko leku nagusiak, sektore anitzeko joera horri bide ematen diotelako kostaldeko edo barnealdeko bisitekin eta eskaintza bereziarekin bateragarria den hiri-jarduerarekin: hondartza, natura, xarma duten herriak edo jarduera tradizionalak edo jaiak.**
- **Euskadiko kostalde osoa (% 20) eta barnealdeko eskualdeak (% 17) ere eragile handiak dira.** Leku bisitagarrien artean nabarmentzekoak dira Bermeo –Urdaibairekin batera–, Getxo, Portugalete eta Lekeitio, Bizkaian, eta Zarautz, Hondarribia, Getaria eta Zumaia, Gipuzkoan. Era berean, gune horiek hiriguneetara joan-etorriak egitea ahalbidetzen dute, jarduera osagarri gisa bisita puntualak egiteko (museoak, erosketak, ibilaldiak, etab.).
- **Gasteiz (% 8), Arabako Errioxa (% 2) eta Araba, oro har, nitxo-turismoetara bideratuta daude,** espezializazio handikoak eta sinergia-aukera gutxiagokoak. Horregatik, kuota turistiko nabarmen txikiagoak hartzen ditu.
- **Eskaintzak mugarri bereziak ditu, eskaria biltzen dutenak eta turismoa erakartzeko balio dutenak.** Mugarri horiek oso banatuta daude jarduera motaren eta helmugaren arabera, eta aukera alternatibo ugari sortzen dituzte, Euskadiko turismoaren ezaugarriekin bat datozenak. **Jardueran oinarritutako interes-eredu baten arabera banaketa egiten bada, honako hauek nabarmentzen dira:**
  - **Donostia hiria,** bereziki, eta baita Bilbo ere, barnealdeko eta kostaldeko herriak, eta Bilboko itsasadarra, **paseoak emateko.**
  - **Bilboko Zazpikaleak,** bereziki, eta Donostiako Alde Zaharra, **hirigune historikoetan murgiltzeko.**
  - **Donostiako hondartza eta itsasertzeko pasealekua,** nagusiki, eta, neurri txikiagoan, baita beste itsas pasealeku eta hondartza batzuk ere, bereziki Hondarribikoa, **hondartzara eta kostaldeko inguruneetara bisita egiteko.**
  - **Andre Maria Zuriaren plaza, Azkuna zentroa, Artzain Onaren katedrala, Haizearen Orrazia,** Santa Maria katedrala, Euskalduna jauregia, San Mames estadioa eta, oro har, ondare erlijiosoak, **ondare-interesari dagokionez.**
  - **Guggenheim,** euskal eskaintza turistikoaren izarra, eta ezinbestekoa museoaren artean.
  - **Artxanda eta Igeldo mendiak,** hiri-parke bisitagarrien artean.
  - **Kostaldeko herriak, Euskadiko turismoarentzat aparteko intereseko jarduera bereizgarri gisa**
- **La lógica de actividad y distribución hace de Bilbao (29%) y Donostia (24,5%) los puntos de pernocta principal, porque dan pie a esta propensión multivectorial,** con una actividad urbana compatible con el acceso a las visitas costeras o de interior y su oferta singular: playa, naturaleza, localidades con encanto o actividades tradicionales o festivas.
- **El conjunto de la Costa Vasca (20%) y las comarcas de interior (17%) también son fuertes contribuyentes.** Destacan como sujetos de visita Bermeo -junto con Urdaibai-, Getxo, Portugalete y Lekeitio, en Bizkaia, y Zarautz, Hondarribia, Getaria y Zumaia, en Gipuzkoa. A su vez, estos puntos posibilitan un desplazamiento a los núcleos urbanos para visitas puntuales -museísticas, comercio, paseos, etc- como actividad complementaria.
- **Vitoria-Gasteiz (8%), Rioja Alavesa (2%) y, en general, Álava quedan influidas por su orientación hacia turismo de nicho,** altamente especializado y con menores posibilidades sinérgicas. Por ello, acoge contingentes turísticos significativamente menores.
- **La oferta cuenta con hitos singulares en los que se acumula la demanda y que sirven para el reclamo turístico.** Estos hitos se reparten fuertemente por tipología de actividad y por destino, generando una amplia malla de posibilidades alternativas acorde con las cualidades del turismo en Euskadi. Si se realiza una distribución según un patrón de interés basado en la actividad, destacan:
  - **La ciudad de Donostia / San Sebastián,** especialmente, y también, el conjunto de Bilbao, localidades de interior y localidades costeras, y la Ría de Bilbao, **para la realización de paseos.**
  - **El Casco Viejo de Bilbao,** especialmente, y la Parte Vieja donostiarra, **para la inmersión en cascos históricos.**
  - **La playa y paseo marítimo en Donostia / San Sebastián,** principalmente, y en menor medida también otros paseos marítimos y playas como, especialmente, la de Hondarribia, **para la visita a la playa y entornos costeros.**
  - **La Plaza de la Virgen Blanca, Azkuna Zentroa, la catedral del Buen Pastor, el Peine del Viento,** la catedral de Santa María, el Palacio Euskalduna, el estadio de San Mamés y, en general, el patrimonio religioso, **en cuanto al interés patrimonial.**
  - El **Guggenheim,** como estrella de la oferta turística vasca, e indispensable desde el campo museístico.
  - El **monte Artxanda** y el **monte Igeldo,** como parques urbanos visitados.
  - Las **localidades costeras,** como actividades de interés singulares y diferenciadoras para el turismo en Euskadi

- **Eskaintza hori oso ondo egokitzen da asteburuetako bisitetara edo jaiegunak diren zubietara** –turismoaren % 81ek 3 gau igarotzen dituzte–; pakete turistikorik kontratatu gabe (% 8), baina bai zerbitzu batzuk kontratatuta (% 88) –gastronomikoak, ikuskizunak edo garraioa–.
- **Euskadiko turismoaren joera polifazetikoa haren ezaugarri soziodemografikoetara hedatzen da**, harrigarria ez den moduan. Askotarikoa da merkatuei, adinari eta talde-eraketari dagokionez:
  - **Merkatuei dagokienez:** % 51,5 nazionala da eta ia erdia nazioartekoa. % 9 baino ez da bertakoa. Eta talde horietako bakoitzean oso banatuta dago: goieneko mailak ditu Frantzia (% 10), Beneluxen (% 5) eta AEBn (% 5), atzerriko turismoaren artean, eta Madril (% 11), Katalunian (% 8) eta inguruko autonomia-erkidegoetan (% 7), turismo nazionalaren artean.
  - **Adinari dagokionez**, esanguratsua da talde guztiak egotea, eta presentzia nabarmena dute bai turismo gazteak –39 urtetik beherakoak; % 29–, bai senior turismoak –54 urtetik gorakoak; % 33–.
  - Adin-egiturarekin bat etorritik, **bikote-turismoa da nagusi** (% 57) eta aipagarriak dira helduez osatutako taldeak (% 23,5). Bi bisita-eredu horiek familia-turismoari lotzen zaizkio (helduak gazteekin edo haurrekin; % 14,5).
- **Nazioarteko turista finkatzearekin batera, gora egin du hegazkinaren garrantziak** helmugarekin lotzeko bide nagusi gisa. % 30era iristen da, 2019an baino 11 puntu gehiago. Ibilgailu pribatuaren erabilera nagusiak gora egin du (% 59), eta gainerako garraibideen erabilera egonkor mantendu da.
- **Euskadiren kokapen geografikoak, eskaintzaren kalitatearekin eta aniztasunarekin batera, aukera ematen dio ibilbideko turismoari.** Ondorioz, bisita-modalitate horrek kuota esanguratsua du Euskadiko turismo-eskariaren artean, ia laurden bat alegia. Euskadik duen kokapena dela-eta, berdin-berdin izan daiteke bidaia baten erdigunea, geografikoki goragoko mailan dagoen ibilbide baten hasiera, edo ibilbide horren azken puntua.
- **Hiru ibilbide-ardatzetan txertatzen da Euskadi:**
  - **Ipar-Hego ardatz nagusia**, Frantziarako konexioak eta Madril oporretako geraleku gisa dituena. Ardatz horrek dauden ibilbide-konbinazioen ia erdiak biltzen ditu.
  - **Arku atlantikoa biltzen duen ardatza.** Bereziki Kantabria jasotzen du eta, neurri txikiagoan, Asturias eta Portugal.
- **Es una oferta que se adapta muy bien a las visitas de fin de semana o puentes festivos** -el 81% del turismo realiza hasta 3 pernociaciones-; sin contratación de paquetes turísticos (8%), pero sí de algunos servicios (88%) -gastronómicos, espectáculos o transporte-.
- **Las orientación polifacética del turismo en Euskadi se extiende a sus rasgos sociodemográficos**, no sorprendentemente. Es variado en mercados, edad, y conformación de grupo:
  - **En cuanto a sus mercados:** un 51,5% nacional, casi la mitad internacional. Tan solo un 9% interno. Y muy repartido en cada una de estas agrupaciones, con picos en Francia (10%), Benelux (5%) y USA (5%) entre el turismo extranjero, y en Madrid (11%), Cataluña (8%) y las Comunidades Autónomas colindantes (7%), entre los nacionales.
  - **En cuanto a la edad**, con presencia significativa de todas las cohortes, y presencias destacadas tanto del turismo joven -menor de 39 años; 29%-como del turismo senior -mayor de 54 años; 33%-.
  - De manera acorde a la estructura de edad, **domina el turismo en pareja** (57%) y son considerables los grupos compuestos por personas adultas (23,5%). Ambos modelos de visita se sitúan por encima del turismo familiar -adultos con jóvenes o niños; 14,5%-
- **A la par de la consolidación del turismo internacional, crece la importancia del avión** como medio principal de conexión con el destino. Supone un 30%, 11 puntos superior al año 2019. Un crecimiento a costa del con todo mayoritario (59%) uso del vehículo privado, a la par que el uso del resto de medios de transporte se mantiene estable.
- **La posición geográfica de Euskadi, unida a la calidad y variedad de la oferta, proporciona una oportunidad para el turismo en ruta.** Como consecuencia, esta modalidad de visita tiene una cuota significativa entre la demanda turística de Euskadi, prácticamente una cuarta parte. Dada su posición, Euskadi puede ser, casi indistintamente, un punto central del viaje, comienzo de una ruta geográficamente superior, o el punto final de esta ruta.
- **Euskadi se integra en tres ejes** de ruta:
  - **Un eje principal Norte-Sur**, con conexiones hacia Francia y con Madrid como paradas integradas en unas vacaciones. Este eje recoge prácticamente la mitad de las combinaciones de ruta existentes.
  - **Un eje que aglutina el arco atlántico**, con una integración particularmente fuerte con Cantabria y, en menor medida Asturias y Portugal.

- **Ekialderantz doan ardatza.** Katalunia oporretarako helmuga integratu gisa kokatzen da, eta Aragoi batzuetan tarteko geraleku gisa agertzen da.
- **Un eje hacia el Este,** el que Cataluña se posiciona fuertemente como destino vacacionalmente integrado, y en el que Aragón figura en ocasiones como punto de parada intermedia.
- **Aisialdiak sortzen duen turismoak guztira 2.295 milioi € mugiarazten ditu Euskadin.** Horietatik 1.208 milioi euro helmugan egindako ordainketei dagozkie. Gainerakoaren zati batek euskal ekonomian ere eragina du: batez ere, ostatu-erreserbetan eta ikuskizunetan egindako gastuak dira, baina ez helmugara iristeko garraioari dagokiona.
- **El turismo emisor de ocio en Euskadi moviliza un total de 2.295 millones de euros.** De ellos, 1.208 millones de euros corresponden a pagos realizados en destino. Parte del restante tiene también impacto en la economía vasca: principalmente se trata de los gastos por reservas de alojamiento y de actividades como espectáculos, pero no del transporte hasta el destino.
- **Pertsonako batez besteko gastua guztira (jatorriko gastua gehi helmugako gastua) 625,9 €-koa da, 2019koaren eta 2023koaren baino handiagoa.** 2019az geroztik ikusten ari garena gastu horren **banaketa eta portaera-joerak aldatzea da, aurretiko erreserbako gastuaren proportzio handiagoarekin.**
- **El gasto medio por persona total** (gasto en origen más gasto en destino) es de **625,9€, superior al de 2019 y 2023.** Lo que si venimos apreciando **desde 2019 es un cambio en la distribución de ese gasto y un cambio en las tendencias de comportamiento, con una mayor proporción de gasto de reserva previa.**
- Aurrekontuaren erdia (% 50) ostatua eta mantenua ordaintzeko da. Garraiora bideratzen da gastuaren % 29, jardueretara % 15 gehiago eta erosketetara gainerako % 5a.
- **La mitad del presupuesto (50%) se dirige al abono del alojamiento y la manutención.** El transporte supone el 29% del gasto, en tanto que las actividades un 15% más y las compras el 5% restante.
- **Gastua sortzen duten jardueren artean gastronomikoa da aipagarria (kuotaren % 86).** Bisita kulturek (% 38), dibertsioak (% 24) eta txangoek (% 19) ere garrantzi handia dute. Beste jarduera batzuek, hala nola kultur ikuskizunek, kirol-ikuskizunek edo kirola egiteak, ongizateak edo jaietan parte hartzeak gastua sortzen dute talde minoritarioen artean, jardueretan gastatzen dutenen % 2 eta % 7 artean.
- **Entre las actividades generadoras de gasto destaca la gastronómica (86% de cuota).** También tienen peso importante las visitas culturales (38%), la diversión (24%) y las excursiones (19%). Otras, como los espectáculos culturales, espectáculos deportivos, o la realización de deporte, bienestar, o participación en fiestas son generadoras de gasto entre grupos minoritarios, con cuotas entre el 2% y el 7% de quienes gastan en actividad.
- **Euskadiko aisialdi turismoaren % 40k gastua egiten du erosketetan.** Erosketa horiek ekipamendu pertsonaleko produktuak (jantziak, oinetakoak, osagarriak), produktu gastronomikoak eta oroigarriak izaten dira. Aitzitik, etxeko ekipamenduetan, produktu elektronikoetan edo beste edozein produktutan egindako erosketak ez dira oso ohikoak.
- **El 40% de las y los turistas de ocio realizan gastos por compras.** El objetivo de estas compras son productos de equipamiento personal -textil, calzado, complementos-, y productos gastronómicos y souvenirs. Por el contrario, las compras en equipamiento del hogar, productos electrónicos, o cualquier otro producto están poco extendidas.
- **Euskadin aisia-arrazoiekin egindako esperientzia turistikoak gogobetetze-maila oso handia sortzen du.** la turista guztiek (% 99) iritzi positiboa dute, eta, hain zuzen ere, gehienek oso positiboki hitz egiten dute (% 70). Turismoak kalitate handiko helmuga gisa definitzen du Euskadi (% 98), eta, besteak beste, jasotako tratua nabarmentzen du (% 98).
- **La experiencia turística por ocio en Euskadi genera una satisfacción muy elevada.** Prácticamente la totalidad (99%) declara una opinión positiva y, de hecho, la mayor parte en términos muy positivos (70%). El turismo define Euskadi como un destino de alta calidad (98%), y en el que, entre otros elementos, destaca el trato recibido (98%).
- **Helmugaren kalitatea dela-eta, esperientziak askotan gainditu egiten ditu alde aurreko itzaropenak** (% 40), edo bete egiten ditu behinik behin. Hau da, **bisita berriak sustatzen ditu, norberarenak eta gomendioaren bidez etorritakoak.** Turismoaren % 66ko atxikipena
- **La calidad de destino se traduce en una experiencia que muy a menudo supera las expectativas previas** (40%), o cuando menos las cumple. Es decir, es **impulsor de nuevas visitas, propias y a través de la recomendación.** Se espera una retención del 66% del turismo en un

espero da 12 hilabeteko epean, egonkorra 2023arekin alderatuta, eta 2019an lortutakoa baino askoz handiagoa (ehuneko 12 gehiago).

- **Gomendio-tasa oso handia da.** % 97k gomendatuko dute Euskadi helmuga gisa ingurune hurbilaren artean, baina sustatzaile zorrotz gisa % 77 hartu behar dira; zifra altua da, baina 2023an erregistratutakoa baino 11 puntu txikiagoa, eta horrek testuingurua gero eta lehiakorragoa dela adierazten du.
- **Lehia nagusia Kantauriko kostaldean dago,** ordeko helmuga baita Euskaditik igarotzen den turismoaren % 53ren artean. Erreferentzia orokor horren barruan, Kantabria da aipagarria, eta, neurri txikixeago batean, Asturias.
- Ahoz ahokoa –gomendioen ondoriozko transmisioa– da bisitak erabakitzeko, osatzeko eta antolatzeko bultzada nagusia. Hau da, **funtsezkoa da lehiaren testuinguruan euskal eskaintzaren kalitate- eta bereizketa-mailei eustea, sustapen-efektu hori bermatze aldera.** Garrantzitsua da, halaber, produktuari buruzko informazioa sendotzea Interneten; izan ere, zuzeneko gomendioarekin batera, bidaia antolatzeko tresna nagusia da, artikuluen, erreportajeen, publizitatearen, giden eta liburuxken, turismo-profesionalen eta turismo-azoka eta -aretoen oso gainetik.
- **Helmugan, turismo-establezimenduek informazio-puntu osagarri gisa duten garrantzia nabarmentzen da** –bi herenek baino zertxobait gehiagok horien bidez bilatzen dute informazioa–. Internet oraindik ere garrantzitsua da, neurri txikiagoan bada ere (% 41), baita turismo-bulegoak ere (% 35). Hurbiltasuna eta erabilgarritasuna funtsezkoak dira turismo-edukiaren banaketan, dagoeneko helmugan zaudenean.
- **Emakumeek eta gizonek oso antzeko dinamika turistikoak dituzte,** baita balorazioak ere. Euskadin egindako turismoa zerbaitegatik da askotan bikotean egindakoa, batzuen eta besteen interesek eta esperientziak bat egiten duteneko. Hala eta guztiz ere, eskaintzaren alderdi garrantzitsuei eragiten dieten **joera desberdintasun batzuk ikusten dira.** Batez ere:
  - **Jarduerari dagokionez,** eta *grosso modo* antzeko interesak erakutsiz, emakumeen artean askoz ere interes handiagoa ikusten da turismo kulturala, hiriko turismoa eta ongi-gizate- eta erosketa-turismoa egiteko, eta interes txikiagoa natura-turismoa eta

plazo de 12 meses, estable con respecto a 2023, y muy superior (12 puntos porcentuales) a la obtenida en 2019.

- **La tasa de recomendación es muy elevada.** Un 97% habrá recomendado Euskadi como destino entre sus entornos inmediatos, si bien deben considerarse como promotores estrictos un 77%, una cifra elevada pero 11 puntos inferior a la registrada en 2023, lo que denota un contexto crecientemente competitivo.
- **La principal competencia se sitúa en la costa Cantábrica,** que se posiciona como destino alternativo entre un 53% del turismo que recalca en Euskadi. Dentro de esta referencia general destacan Cantabria y, en una medida ligeramente inferior, Asturias.
- El boca a boca -la transmisión derivada de recomendaciones- constituye el principal impulso para la decisión, conformación y organización de las visitas. Es decir, **es fundamental mantener los niveles de calidad y diferenciación de la oferta vasca dentro del contexto competencial, de manera que se garantice este efecto promocional.** También es importante consolidar la información sobre el producto en internet dado que, junto con la recomendación directa, constituye la herramienta de organización de viaje primordial, muy por encima de artículos, reportajes, publicidad, guías y folletos, profesionales turísticos, y ferias y salones turísticos.
- **En destino, destaca la importancia de los establecimientos turísticos como puntos de información complementaria** -algo más de dos tercios la busca a través de éstos-. Internet sigue siendo relevante, aunque ya en una medida inferior (41%), y también las oficinas de turismo (35%). Cercanía y disponibilidad son claves en la distribución de los contenidos turísticos, ya en destino.
- **Mujeres y hombres presentan dinámicas turísticas muy similares,** incluidas las valoraciones. No en vano, el realizado en Euskadi es un turismo a menudo realizado en pareja, en el que los intereses y experiencias confluyen. Con todo, **se observan algunas diferencias tendenciales** que afectan a aspectos relevantes de la oferta. Principalmente:
  - **En cuanto a la actividad,** y mostrando *grosso modo* intereses similares, entre las mujeres se observa un interés

ibilbide turistikoak egiteko. Hau da, **esparru hiritarragoa eta geografikoki zentratuagoa.**

- **Informazio-iturriei dagokienez, jatorrian.** Berriro ere *grosso modo*, emakumeek eta gizonek bidaia osatzeko iturri nagusiak partekatzen dituzte –gomendioa eta Internet–. Hala ere, **emakumeek beste iturri batzuk ere erabiltzen dituzte, hala nola liburuxkak, gidak, erreportajeak, publizitatea eta artikulak.**
- **Helmugan informazioa bilatzeari dagokionez.** Emakumea irekiagoa da aurrez aurreko harremanak eskatzen dituen informazioa bilatzerakoan: establezimenduan, turismo-bulegoan edo langile publikoen bidez.

significativamente superior por ejercer un turismo cultural, un turismo urbano y un turismo de bienestar y de compras, y un interés menos extendido por un turismo de naturaliza y por la realizar rutas turísticas. Es decir, **un marco más urbano y centrado geográficamente.**

- **En lo relativo a las fuentes de información, en origen.** Grosso modo de nuevo, mujeres y hombres comparten las fuentes principales de conformación del viaje -recomendación e internet-. No obstante, **ellas son más receptivas a fuentes alternativas, como los folletos, guías, reportajes, publicidad y artículos.**
- **En lo relativo a la búsqueda de información en destino.** La mujer se muestra más abierta a la búsqueda de información que implica relaciones cara a cara: en el establecimiento, en la oficina de turismo, o a través de personal público.

## AISIA-TURISMORAKO ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Eskariaren ikuspegitik aztertutako Euskadiko aisia-turismoaren ezagutzan murgildu aurretik, azaldu egin beharko dugu, labur bada ere, inkestetako datuak ateratzeko erabili dugun **erreferentzia-esparrua** eratzeko prozesua.

Aldez aurretik, garrantzitsua da, halaber, laginketa-informazioa biltzeko prozesua zehaztu duten faktore metodologiko nagusiak aurreratzea:

**Urteko sasoiaren arabera** (Gabonak, Aste Santua, uda eta urteko gainerako denbora hartu dira aintzat), eta **gaua emateko lekuaren arabera** (Gasteiz, Bilbo, Donostia, Euskadiko Kostaldea, Arabako Errioxa eta Euskadiko Barnealdea bereizi dira) banatu dira laginak, batean nahiz bestean informazioa biltzeko **ostatu mota** desberdinen arabera (hotel-establezimenduak, kategoria edozein dela ere; landa-ostatuak; kanpinak eta apartamentu turistikoak). Laginaren diseinuan ezin izan da a priori turisten **bizilekua** erabili, baina informazio hori zuzenean erabili da datuak neurtzeko, erreferentziako unibertsoaren zenbatespena oinarri hartuta.

Informazioa 2025an zehar bildu da. Aipatu bezala,aldi horretan hiru informazio-bilketa egin dira paraleloan, bakoitza helburu jakin batekin:

- **Turisten unibertsoa berriro zenbatetea (Kopurua).** Asmoa: bidaia egiteko arrazoiaren arabera zenbatetea Euskadira bisitan etortzen diren turisten unibertsoa.
- **Aisialdiari buruzko inkestak.** Asmoa: Euskadira aisialdian etortzen diren turistikak ezaugarritzea eta tipifikatzea.
- **Gastuari buruzko inkesta.** Asmoa: turistikak bidaiaren (bidaiaren arlo guztietan) egiten duten gastua zehazteko informazioa biltzea.

Turisten kopurua zehazteko, hotel-establezimenduetan ostatu hartzen duten pertsonak zenbatu dira, bidaiaren arrazoia edozein izanda ere. Aisialdiari eta gastuari buruzko inkestei dagokienean, berriz, Euskadira honako arrazoi hauengatik etorri diren pertsonak hartu dira aintzat: aisiagatik, oporretan, arrazoi erlijiosoengatik, borondatezko osasun-tratamenduak egiteko, familiakoak eta lagunak bisitatzeke edo erosketak egiteko.<sup>1</sup>

## MARCO DE REFERENCIA PARA EL TURISMO DE OCIO

Antes de pasar a profundizar en el conocimiento del turismo de ocio en Euskadi desde la perspectiva de la demanda, conviene detenerse y exponer, aunque sea someramente, el proceso según el cual se ha conformado el marco de referencia que se ha utilizado para inferir los datos de las encuestas.

Previamente, también es importante, avanzar los principales factores metodológicos que han determinado el proceso de recogida de la información muestral:

*El diseño muestral ha repartido el número de encuestas a realizar por periodos temporales en el año (Navidad, Semana Santa, verano y resto del año), en cada destino de pernoctación (Vitoria-Gasteiz, Bilbao, Donostia/San Sebastián, Costa Vasca, Rioja Alavesa, Interior) según los distintos tipos de alojamiento (establecimientos hoteleros de todas las categorías, alojamientos rurales, camping y apartamentos turísticos) previstos donde se han llevado a cabo la recogida de información. El lugar de residencia de las y los turistas no se puede utilizar a priori en el diseño muestral, pero sí ha intervenido directamente en la calibración de los datos a partir de la estimación del universo de referencia.*

*El periodo de recogida de información se ha desarrollado a lo largo del año 2025 a través de tres capturas de información en paralelo cada una con sus propios objetivos:*

- **Reestimación del universo de turistas (Aforo).** Cuyo objetivo es disponer de datos con los que poder estimar el universo de turistas que visitan Euskadi según la motivación del viaje.
- **Encuestas de ocio.** Con el objeto básico de caracterizar y tipificar a las y los turistas que visitan Euskadi por motivos de ocio.
- **Encuesta de gasto.** Su objetivo es disponer de información suficiente para determinar, a diferentes niveles, el gasto que las y los turistas objetivo realizan en su viaje.

*El aforo de turistas se ha llevado a cabo entre las personas alojadas en los establecimientos independientemente del motivo de su viaje. Sin embargo, tanto la encuesta de ocio como la de gasto, sólo se ha aplicado a aquellas personas alojadas cuya motivación principal para visitar Euskadi hubiese sido: ocio, recreo, vacaciones, motivos religiosos, tratamientos voluntarios de salud, visita a familiares y amistades y compras.<sup>2</sup>*

Euskadiko turismoaren berri ematen duten estatistika ofizialek ez dituzte turistak arrazoiaren arabera bereizten. Eta, adierazi dugun bezala, lan honetan ezinbestekoa da aisialdian etortzen direnak kuantifikatzea.

**EUSTAT**ek, Euskal Estatistika Institutuak, Euskadin gaua ematen duten turista-kopuruari buruzko datuak argitaratzen ditu *Turismo-establezimendu hartzaileen inkestaren*<sup>3</sup> bidez. Hona hemen landa-lana egin den aldian (2025an) EUSTATEk eman duen datua:

- ✓ **3.896.840 turistak** eman dute gaua hotel-establezimenduetan.
- ✓ **183.900 turistak** eman dute gaua landetxeetan eta nekazaritza-turismoko establezimenduetan.
- ✓ **276.503 turistak** eman dute gaua apartamentu turistikoetan.

Kanpinetako okupazioari buruzko informazioa eskuratzeko, Estatistikako Institutu Nazionalera (**EIN**) jo dugu, *Kanpinetako okupazioaren estatistika* azterlanean argitaratutako datuen bila.

- ✓ **330.812 turistak** eman dute gaua kanpinetan.

Turisten bolumen hori (**4.668.055 turista**) izan da, hasiera batean, landa-lanean jasotako informazioa jasotzeko erreferentzia. Jasotze-prozesuaren azken emaitza, Euskadin bidaiaren arrazoa jasotzen duen aldagaiari aplikatuta, honako hau izan da:

Las estadísticas oficiales que informan sobre el turismo en Euskadi, al proporcionar datos sobre las y los turistas no diferencian entre quienes visitan el destino en función de sus distintas motivaciones. Y, como ya se ha adelantado, en el marco de esta operación, es necesario cuantificar quienes lo hacen **por ocio**.

**EUSTAT**, el Instituto Vasco de Estadística, a través de la *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores*<sup>4</sup>, publica datos sobre el número de turistas que pernoctan en Euskadi. En concreto, en el periodo en el que queda establecido el trabajo de campo (año 2025) este dato ha sido:

- ✓ **3.896.840 turistas** que pernoctan en establecimientos hoteleros.
- ✓ **183.900 turistas** que pernoctan en agroturismos o casas rurales.
- ✓ **276.503 turistas** que se alojan en apartamentos turísticos.

Para disponer de información sobre la ocupación en camping se acude al *Instituto Nacional de Estadística (INE)*, a los datos publicados sobre la *Encuesta de Ocupación en Camping*:

- ✓ **330.812 turistas** que pernoctan en camping.

Este volumen de turistas (**4.668.055 turistas**) ha constituido la referencia inicial a la que elevar la información recogida en campo. El resultado final del proceso de elevación, aplicado sobre la variable que recoge el motivo del viaje por Euskadi, ha sido:

EUSKADIRA ETORTZEKO ARRAZOI NAGUSIA MOTIVO PRINCIPAL DEL VIAJE POR EUSKADI	GUZTIRA TOTAL		ESTABLEZIMENDU MOTA TIPO DE ESTABLECIMIENTO							
			Hotelak Hoteles		Landa-ostatuak Alojamientos rurales		Kanpinak Camping		Apartamentu turistikoak Apartamentos turísticos	
<b>KOPURUA / Nº CASOS</b>	<b>4.688.055</b>	<b>100%</b>	<b>3.896.840</b>	<b>100%</b>	<b>183.900</b>	<b>100%</b>	<b>330.812</b>	<b>100%</b>	<b>276.503</b>	<b>100%</b>
<b>Lana, negozioak orokorrean</b> Trabajo, negocios en general	649.593	13,9%	617.767	15,9%	11.075	6,0%	3.152	1,0%	17.599	6,4%
<b>Azoketara joatea</b> Asistencia a ferias	9.727	0,2%	9.462	0,2%	266	0,1%				
<b>Biltzar, konbentzio eta jardunaldietara joatea</b> Asistencia a congresos, convenciones, jornadas	51.470	1,1%	50.840	1,3%					630	0,2%
<b>Hezkuntza eta prestakuntza</b> Educación y formación	53.263	1,1%	46.624	1,2%	1.046	0,6%			5.593	2,0%
<b>Erosketak</b> Compras	5.049	0,1%	5.049	0,1%						
<b>Senideak eta lagunak bisitatzeke</b> Visita a familiares y amistades	131.559	2,8%	110.292	2,8%	1.280	0,7%	1.400	0,4%	18.587	6,7%
<b>Osasuna eta arreta medikoa</b> Salud y atención médica	11.303	0,2%	11.270	0,3%					34	0,0%
<b>Erlijioa, erromesaldiak</b> Religión, peregrinaciones	21.078	0,4%	19.707	0,5%	860	0,5%	372	0,1%	140	0,1%
<b>Oporrak eta aisialdia</b> Vacaciones, recreo y ocio	3.497.667	74,6%	2.803.463	71,9%	164.567	89,5%	305.749	92,4%	223.889	81,0%
<b>Zirkulazioa</b> Tránsito	207.791	4,4%	177.847	4,6%	3.323	1,8%	20.113	6,1%	6.507	2,4%
<b>Beste arrazoi batzuk</b> Otros motivos	49.554	1,1%	44.520	1,1%	1.483	0,8%	25	0,0%	3.526	1,3%

Helmuga batera joaten diren turisten motibazio nagusiak bi izan ohi dira: **aisia** (atsedena edo dibertsioa beste jarduera batzuekin lotzen duena, esaterako, erosketak, inguruko pertsonak bisitatzea, erlijioa edo osasuna) edo **lana**

Turistek Euskal Autonomia Erkidegoan egindako txangoen % 43,8 biltzen ditu Bizkaiak. Lurraldean egindako txangoen % 28,5 Bilbo hiriburuan egiten dira. Lurralde horretan, hiriburura egindako txangoez gain, honako udalerrri hauek egiten dira txango gehien: Bermeo (% 23,1), Getxo (% 8,0), Portugalete (% 6,6), Mundaka (% 5,2), Lekeitio (% 4,6) eta Gernika-Lumo (% 3,9).

Bizkaia concentra el 43,8% de las excursiones llevadas a cabo en la comunidad vasca. Su capital, Bilbao, alcanza el 28,5% de las excursiones realizadas en el territorio. En este territorio, además de las realizadas a la propia capital, las excursiones que con mayor peso repercuten en los municipios son: Bermeo (23,1%), Getxo (8,0%), Portugalete (6,6%), Mundaka (5,2%) Lekeitio (4,6%) y Gernika-Lumo (3,9%).

**3. mapa. Bizkaian ostatu hartu den udalerritik kanpo egindako txangoak. 2025. Oinarria: bisitatutako edo bisitatu beharreko udalerriak**

Mapa 3. Excursiones realizadas en Bizkaia, fuera del municipio donde se alojan. 2025. Base: municipios visitados o a visitar




Euskadin turistek egiten dituzten txango gehienak Gipuzkoan egiten dira (% 44,5), eta horietatik % 28,2 hiriburuan egiten dira. Lurralde horrek, Donostia albo batera utzita, kostaldeko lau udalerritan biltzen ditu bisita gehien: Zarautz (% 21,8), Hondarribia (% 15,7), Getaria (% 10,5) eta Zumaia (% 10,0).

La mayor parte de las excursiones realizadas por las y los turistas en Euskadi se centran en el territorio de Gipuzkoa (44,5%) de las que el 28,2% se llevan a cabo en su capital. Este territorio, sin tener en cuenta Donostia/San Sebastián, concentra en cuatro municipios costeros el mayor número de visitas: Zarautz (21,8%), Hondarribia (15,7%), Getaria (10,5%) y Zumaia (10,0%).

**4. mapa. Gipuzkoan ostatu hartu den udalerritik kanpo egindako txangoak. 2025. Oinarria: bisitatutako edo bisitatu beharreko udalerriak**

Mapa 4. Excursiones realizadas en Gipuzkoa, fuera del municipio donde se alojan. 2025. Base: municipios visitados o a visitar



Aldatu egin al dira turisten lehentasunak jardueretan?

2017-2016 aldiaz geroztik, egonaldian Euskadi bisitatzeko duten turistek egindako **jarduera nagusien** sailkapenari eutsi zaio.

2023. urtearekin alderatuta, jaitsi egin da naturan eta kostaldeko turismoan atsedeen-jarduerak eta ibilbide turistikoak eta turismo aktiboa egiten dituzten pertsonen kopurua.

Hiriko turismoak azken bi edizioetan nolabaiteko garrantzia hartu badu ere, 2017-2016 aldiko datuen azpitik jarraitzen du.

¿Cambian las preferencias de las y los turistas en la práctica de actividades?


Desde 2017-2016, se mantiene la clasificación de las **principales actividades** realizadas por las y los turistas que visitan Euskadi durante su estancia.

Con respecto a 2023 ha caído el número de personas que practica actividades de descanso en la naturaleza y turismo costero y rutas turísticas y turismo activo.

El turismo en la ciudad ha ganado cierta relevancia en las dos últimas ediciones, aunque se mantiene por debajo de los datos de 2017-2016.

43. grafikoa. Turistek egindako jardueren laburpena, (2025, 2023, 2019, 2017-2016). Erantzun anizkoitza (baiezko erantzunen ehunekoak).

Gráfico 43. Resumen de actividades realizadas por las y los turistas, Euskadi (2025, 2023, 2019, 2017-2016) Respuesta Múltiple (porcentaje de respuestas afirmativas).



Txosten honetan nabarmendu den bezala, gastronomia da Euskadiko turismoaren motibazio bultzatzaile handienetako bat eta, beraz, egonaldian gehien eskatzen den jardueretako bat da. Hori dela eta, badirudi beharrezkoa dela turistek Euskadiko **eskaintza gastronomikoaz** egiten duten erabileran eta horrek denboran zehar izan duen bilakaeran sakontzea.

2025ean, Euskadi aisia-arrazoiengatik bisitatu duten turisten % 97,3k bazkariren edo afariren bat egin dute jatetxe, kafetegi eta antzeko establezimenduetan; 2023ko datua baino pixka bat gorago (% 96,6) eta 2019an baino lau puntu gehiago (% 93).

2004tik 2010era ia 3 aldiz handitu zen *pintxo-bazkari edo -afariren* bat egiten zuten turisten kopurua. 2025ean lortu zen erregistratutako zifrarik altuena, % 97,4, 3 puntutan gainditu zituen 2023ko (% 94,8) eta 2017-2016 aldiko erregistroak (% 94,4), 2019an izandako jaitsieraren ondoren (% 88,4).


Como se ha venido destacando a lo largo de este informe, la gastronomía es una de las mayores motivaciones tractoras del turismo en Euskadi y, por tanto, una de las actividades más demandadas durante su estancia. Por ello, parece necesario profundizar en el uso que hacen las y los turistas de la **oferta gastronómica** de Euskadi y su evolución en el tiempo.

En 2025 el 97,3% de las de las y los turistas que visitan Euskadi por ocio ha realizado alguna comida o cena en restaurantes, cafeterías y en establecimientos similares; algo superior al dato de 2023 (96,6%) y cuatro puntos mayor que en 2019 (93%).

De 2004 a 2010 se multiplicó casi por 3 el número de turistas que realizaban alguna comida o cena de *pintxos*. En 2025 se alcanza la cifra más alta de las registradas con un 97,4% superando en 3 puntos porcentuales el registro de 2023 (94,8%) y la de 2017-2016 (94,4%) y tras la bajada registrada en 2019 (88,4%).

**44. grafikoa. Euskadiko egonaldian turistak zer jatetxe motatan egon diren (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010, 2004). Erantzun anizkoitza**

Gráfico 44. Tipos de restaurantes utilizados por las y los turistas durante su estancia en Euskadi (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010, 2004). Respuesta múltiple



Karta eskaintzen duten jatetxeen erabilera aldatu egiten da urteetan zehar, eguneko menua eskaintzen duten jatetxeen erabileraren arabera, eta alderantziz. 2019an, 2017-2016 aldiarekin alderatuta, karta eskaintzen duten jatetxeen erabilerak 20 puntu egin zuen gora, eta, ondorioz, 15 puntu jaitsi zen eguneko menua eskaintzen duten jatetxeen erabilera. 2023an, karta eskaintzen duten jatetxeen aukera ezabatu zen, eta gastronomia-zigilua duten jatetxeen izendapen berri bat sartu zen, % 15eko erabilera izan zuena. 2025ean aukera horrek 6 puntu galdu ditu eta % 9,4an geratu da.

2012tik 2017-2016 aldira, egile-sukaldaritzako jatetxeetara joaten diren turisten ehunekoak joera konstanteari eutsi dio, 2010. eta 2012. urteen artean izandako beherakada nabarmenaren ondoren. 2019an, mota horretako jatetxeetara joaten diren turisten kopuruak nabarmen egin du gora (% 7, eta 2017-2016 aldian, berriz, % 3). 2023an ia % 27ko erabileraren zifra errekorra erregistratu zen. 2025ean erregistroak 8 puntu galdu ditu, eta % 19an geratu da horrelako jatetxeetara joaten diren turisten ehunekoa.

2025ean jatetxe mota guztiek behera egin dute 2023ko datuekin alderatuta, pintxoak dituztenek izan ezik.

El uso de restaurantes a la carta oscila a lo largo de los años en función del uso de los restaurantes de menú del día, y viceversa. En 2019 con respecto a 2017-2016, el uso de restaurantes a la carta registra un incremento de 20 puntos porcentuales, y el consiguiente descenso en 15 puntos del uso de los restaurantes de menú del día. En 2023 se elimina la opción de restaurantes a la carta y se incluye una nueva denominación de restaurantes con sello gastronómico que registra un 15% de uso. En 2025 esta alternativa pierde 6 puntos y queda en un 9,4%.

De 2012 a 2017-2016 el porcentaje de turistas que acuden a restaurantes de cocina de autor mantiene una tendencia constante después del acusado descenso acaecido entre los años 2010 y 2012. En 2019 el número de turistas que acuden a este tipo de restaurantes registra un considerable incremento (7% frente a 3% de 2017-2016). En 2023 se registra una cifra récord de casi el 27% de uso. En 2025 el registro pierde 8 puntos porcentuales quedando en 19% el porcentaje de turistas que han acudido a este tipo de restaurantes.

En 2025 todos los tipos de restaurantes bajan respecto a 2023, excepto los pintxos.

### 3.- EUSKADIREN BALORAZIOA ETA AURREIKUSPENAK

#### 3.1.- Nola baloratzen dute Euskadi?

Euskadi bisitatzen duten ia turista guztiek (% 98,9) positiboki baloratzen dute Euskadi helmuga turistikoa gisa, eta horietatik % 70ek oso positiboki. Antzera baloratzen dute helmugaren kalitatea (% 98,4) eta jasotako tratua (% 98,2), ezagutzen dituzten beste helmuga batzuekin alderatuta.

Turisten % 39,5entzat Euskadira egin duten bidaiak gainditu egin ditu zituzten aurreikuspenak. Ia % 59k uste dute Euskadira egindako bisitaren esperientziak helmugari buruz zuten irudia estali duela, eta ehuneko puntu erdira baino ez dira iristen aurreikuspen horiek bete ez dituztela diotenak. Beste helmuga batzuetako prezioekin alderatuta, turisten % 82k uste dute Euskadiko prezioak normalak direla; ia % 15ek uste dute helmuga garestia (% 13,7) edo oso garestia (% 1,0) dela, eta % 3k baino zertxobait gehiagok merkea edo oso merkea dela.

Natura- eta paisaia-ingurunea (% 23,2), eskaintza eta kalitate gastronomikoa eta enologikoa (% 23,0) eta euskal izaerari lotutako ezaugarriak (% 13,6) dira **alderdirik erakargarrienak** Euskadi bisitatzen duten turistentzat.

### 3.- VALORACIÓN DE EUSKADI Y EXPECTATIVAS


#### 3.1.- ¿Cómo valoran Euskadi?

Prácticamente la totalidad de las y los turistas que visitan Euskadi valoran positivamente Euskadi como destino turístico (98,9%) y de ellos el 70% lo hacen muy positivamente. De modo similar valoran la calidad del destino (98,4%) y el trato recibido (98,2%), en comparación con otros destinos que conocen.

Para el 39,5% de las y los turistas el viaje que han realizado a Euskadi ha superado las expectativas que tenía. Casi el 59% considera que la experiencia de la visita a Euskadi ha cubierto la imagen que tenían del destino y apenas alcanzan el medio punto porcentual quienes afirman que no ha llegado a cubrirlas. En la comparación del precio con otros destinos el 82% de las y los turistas consideran que los precios en Euskadi son normales; casi el 15% opina que es un destino caro (13,7%) o muy caro (1,0%) y algo más del 3% que es barato o muy barato.

El entorno natural y paisajístico (23,2%) y la oferta y calidad gastronómica y enológica (23,0%) junto con las características asociadas al carácter vasco (13,6%) son los **aspectos más atractivos** para las y los turistas que visitan Euskadi.

45. grafikoa. Alderdirik erakargarrienak, Euskadira etortzen diren turisten arabera. 2025  
 Gráfico 45. Aspectos más atractivos según las y los turistas que visitan Euskadi. 2025




**Alderdi negatiboei** dagokienez, Euskadi bisitatzen dutenen % 69k uste dute ez dagoela gustatu ez zaien edo faltan bota duten alderdirik. Balorazio txarrean jaso duten alderdien artean daude gauzen prezioa (% 4,8), klima (% 4,3) eta aparkatzeko arazoak (% 3,1).

Respecto a los **aspectos negativos**, el 69% de quienes visitan Euskadi consideran que no hay aspectos que no les haya gustado o hayan echado en falta. Entre los aspectos peor valorados se encuentran el precio de las cosas (4,8%), el clima (4,3%) y los problemas de aparcamiento (3,1%).

**46. grafikoa. Gutxien gustatu zaizkien edo faltan bota dituzten alderdiak. 2025**

Gráfico 46. Aspectos de Euskadi que menos les han gustado o han echado en falta. 2025



### 3.2.- Itzuliko al lirateke Euskadira?

#### Fidelizazio- eta berritze-tasa

**Fidelizazio-tasatzat** hartzen da Euskadira bisita errepikatzen duten turisten ehunekoa, eta **berritze-tasatzat**, berriz, lehen aldiz etortzen direnen ehunekoa. Biak ala biak garrantzitsuak dira turisten portaeraren berri jakiteko, batez ere informazio-bilaketaren harira, erreserben harira, aurreikuspenen harira eta abar.

2025ean, Euskadi bisitatu duten turisten % 56,3k lehen aldiz bisitatu dute, eta gainerakoek (% 43,7) Euskadi aurrez bisitatu zuten, aisia-arraioengatik. Euskadira aurretik bisita egin duten turisten artean, batez beste ia 8 bisita egin dituzte.

#### Gomendio-tasa eta Euskadira itzultzeko asmoa

Euskadi aisia-arraioengatik bisitatzen duten turistak helmugaren sustatzaile zein mailatan bihur daitezkeen neurtzen du **gomendio-tasak**. Turisten ia % 77k segurtasun osoz gomendatuko liekete Euskadi gertuko pertsoneri.

Bestalde, **atxikipen-tasak** turistek helmugarekiko duten fidelitasuna neurtzen du epe jakin batean. Hau da, aisia dela-eta, hurrengo 12 hilabeteetan Euskadira itzuliko direla dioten edo uste duten turistak. Esperientzia errepika dezaketela dioten Euskadiko turisten atxikipen-tasa % 66koa da. 2023ko erregistroa errepikatu da, eta 2019an (% 54) hala adierazi zutenena baino 12 puntu handiagoa izan da.

### 3.3.- Zein dira helmuga lehiakideak?

Euskadi bisitatzen duten turisten % 36,5 beste norako batera joango ziren ostatu-plazarik aurkitu izan ez balute. Erregistro hori 2023ko edo 2019ko datuak baino ia ehuneko 17 baxuagoa da.

Ordezko helmuga nagusia Kantabria da (% 19,8), gero Asturias (% 15,9) eta iparraldea, eta Kantauriko kostaldea (% 10,6).

### 3.2.- ¿Volverían a Euskadi?

#### Tasa de fidelización y tasa de renovación

Se entiende por **tasa de fidelización** el porcentaje de turistas que repite su visita a Euskadi y por **tasa de renovación** el porcentaje de quienes acuden por primera vez. Es importante tener en cuenta ambas tasas a la hora de interpretar el comportamiento de las y los turistas, sobre todo en aspectos relacionados con las búsquedas de información, reservas, expectativas etc.

En 2025 el 56,3% de las y los turistas que han visitado Euskadi lo han hecho por primera vez y el resto (43,7%) han visitado Euskadi por motivaciones de ocio anteriormente. El número de visitas previas a Euskadi, realizado entre las y los turistas que lo han visitado anteriormente, asciende de media a casi 8 visitas.

#### Tasa de recomendación e intención de volver a Euskadi

La **tasa de recomendación** mide el grado en que las y los turistas que visitan Euskadi por motivos de ocio pueden convertirse en promotores del destino. Prácticamente el 77% de las y los turistas recomendarían Euskadi a personas cercanas con total seguridad.

Por otra parte, la **tasa de retención** mide la fidelidad de las y los turistas con el destino en un plazo concreto. Es decir, cuantos turistas afirman o creen probable que volverán a Euskadi en los próximos 12 meses por motivos de ocio. La tasa de retención en Euskadi alcanza el 66% de turistas que sostienen que pueden repetir la experiencia. Se reproduce el registro de 2023 y es 12 puntos porcentuales mayor de quienes así lo declararon en 2019 (54%).

### 3.3.- ¿Cuáles son los destinos competencia?

El 36,5% de las y los turistas que visitan Euskadi se hubiera desplazado a otro destino en caso de no haber encontrado plaza de alojamiento. Este registro supone casi 17 puntos porcentuales menos que los datos de 2023 o 2019.

El principal destino alternativo es Cantabria (19,8%) seguido a cierta distancia por Asturias (15,9%) y por la zona norte, costa cantábrica (10,6%).

5. taula. Ordezko helmuga nagusiak. 2025. Oinarria: Euskadin ostaturik aurkitu ezean helmuga aldatuko luketen turistak  
 Tabla 5. Principales destinos alternativos. 2025. Base: Turistas que cambiarían de destino por ausencia de plazas en Euskadi

Ordezko helmugak Destinos alternativos	Euskadi
Kantabria   Cantabria	19,8%
Asturiasko Printzerria   Principado de Asturias	15,9%
Iparraldea. Kantauriko kostaldea. Euskadiko inguruak   Norte. Costa cantábrica. Alrededores Euskadi	10,6%
Katalunia   Cataluña	8,9%
Galizia   Galicia	6,8%
Madrilgo Erkidegoa   C. Madrid	5,9%
Errioxa   La Rioja	5,7%
Frantzia   Francia	5,7%
Gaztela eta Leon   Castilla y León	3,4%
Nafarroako Foru Erkidegoa   C.F. Navarra	3,4%


Zer bilakaera izan dute turistek balorazioek eta itxaropenek denborak aurrera egin ahala?

2025ean turistek **Euskadiri** buruz helmuga turistikoa gisa egin duten **balorazioa** (% 98,9) ez da 2023an (% 99,2) edo 2019an (% 99,7) jasotakoa bezain ona. 2019az geroztik, balorazio "Nahiko positiboa" egiten duten pertsonen kopuruak gora egin duela ikusi da, "Oso positiboa" egiten dutenen kaltetan. Hala eta guztiz ere, Euskadiri buruzko balorazio positiboa % 100 inguruko zifretara iristen da oraindik ere, oro har. Oraindik ez da balorazio negatiborik jaso, 2012an erregistratutako apurretatik haratago.

¿Qué evolución siguen las valoraciones y las expectativas de las y los turistas con el paso del tiempo?

La **valoración de Euskadi** como destino turístico por parte de las y los turistas en 2025 (98,9%) es algo menos entusiasta que la percibida en 2023 (99,2%) o 2019 (99,7%). Desde 2019 se ha observado una tendencia al alza del peso de las personas que valoran "Bastante positivamente" en detrimento de quienes lo hacen "Muy positivamente". No obstante, en términos generales, la valoración positiva de Euskadi sigue alcanzando cifras cercanas al 100%. Siguen sin aparecer valoraciones negativas desde las pocas registradas en 2012.

47. grafikoa. Euskadiren balorazioa helmuga turistikoa gisa (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012)  
 Gráfico 47. Valoración de Euskadi como destino turístico (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012)




Jasotako **tratuari** eta hautemandako **kalitateari** buruzko balorazioek, turistek ezagutzen dituzten beste helmuga batzuekin alderatuta, aurrez adierazitakoaren antzera jokatzen dute, "Oso positiboa" eta "Nahiko positiboa" erantzun-aukeren artean balorazioak aldatzeari dagokionez, eta 2010. urteaz geroztik erregistratutakoen oso antzeko zifra positiboak lortu dira.

Las valoraciones sobre el **trato** recibido y la **calidad** percibida, comparando con otros destinos que conocen, las y los turistas se comportan de manera similar a lo señalado anteriormente sobre el trasvase de valoraciones entre las opciones de respuesta "Muy positivamente" a "Bastante positivamente", obteniendo cifras positivas muy similares a las registradas desde 2010.


48. grafikoa. Turistek Euskadiko egonaldian hautemandako kalitatearen balorazioa (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)

Gráfico 48. Valoración de la calidad percibida por las y los turistas durante su estancia en Euskadi (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)



49. grafikoa. Turistek Euskadiko egonaldian jasotako tratuaen balorazioa (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)


Gráfico 49. Valoración del trato recibido por las y los turistas durante su estancia en Euskadi (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)



2025ean, eten egin da 2014. urteaz geroztik Euskadi helmuga garesti edo oso garesti gisa ikusteko joera gero eta handiagoa. Hain zuzen ere, azken edizio honetan, Euskadi helmuga garestizat (% 13,7) edo oso garestizat (% 1,0) jotzen duten pertsonen serieko daturik txikiena (% 14,7) erregistratu da. Alderdi horren harira helmuga "normalizat" hartzeko joerak gora egin du.

En 2025 se frena la tendencia al alza en la percepción de Euskadi como destino caro o muy caro que se venía observando desde 2014. De hecho, en esta última edición, se registra el dato más bajo (14,7%) de la serie de las personas que perciben Euskadi como un destino caro (13,7%) o muy caro (1,0%). Crece la tendencia a considerarlo como un destino "normal" en este aspecto.


50. grafikoa. Euskadiko prezioen balorazioa helmuga turistikoa gisa (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)  
 Gráfico 50. Valoración del precio de Euskadi como destino turístico (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)



2012an, **berritze-tasa** (Euskadira lehen aldiz etorritako turistak) % 63koa izan zen, 2010. urtekoaren bikoitza. 2014an, tasa hori 20 puntu jaitsi zen, % 43ra iritsi arte, eta orduz geroztik % 50eko balioetan edo hori baino balio handiagoetan kokatu da, daturik altuena (% 56,3) 2025ean lortu duen arte (2012ko tasa kontuan hartu gabe).

En 2012 la **tasa de renovación** (turistas que venían por primera vez a Euskadi) era del 63%, el doble que en 2010. En 2014 esta tasa cae 20 puntos porcentuales hasta alcanzar el 43% y desde entonces se sitúa con valores del 50% o superiores hasta alcanzar el dato más alto (sin considerar la tasa de 2012) en 2025 (56,3%).

51. grafikoa. Euskadira datozen turistak berritze- eta errepikatze-tasak (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)  
 Gráfico 51. Tasas de renovación y repetición de las y los turistas que vienen a Euskadi (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)




Aisia-arrazoiengatik hurrengo 12 hilabeteetan **Euskadira itzultzeko asmoari** dagokionez, 2023an (% 66,1) eta 2025ean (% 66,2) mantendu egin da hori gertatzeko aukera probablea edo segurua dela uste duten turisten kopurua. 2019ko (% 54,1) edo 2017ko (% 54,7) datuak baino 12 puntu gehiago dira. Hala ere, halako goranzko joera bat ikusten da nolabaiteko probabilitatea dagoela uste dutenen artean, ziurtasuna dutenen kaltetan.

En cuanto a la **intención de volver a Euskadi** por ocio en los próximos 12 meses, en 2023 (66,1%) y 2025 (66,2%) se mantiene el peso de las y los turistas que consideran probable o seguro que lo harán. Son 12 puntos porcentuales más que los datos de 2019 (54,1%) o 2017 (54,7%). No obstante, se observa cierta tendencia al alza de quienes consideran que existe cierta probabilidad en detrimento de quienes tienen la certeza.

52. grafikoa. Hurrengo 12 hilabeteetan Euskadira aisia-arrazoiengatik itzultzeko asmoa (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)


Gráfico 52. Intención de volver a Euskadi en los próximos 12 meses de ocio (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)



Euskadi hurbileko pertsonen gomendatzeko tasak beheranzko joera erakusten du 2019. urteaz geroztik (% 99,7) eta serieko minimora iritsi da 2025ean (% 97,1). Berritua ere, kopuruetan trukea gertatu dela ikusten da gomendatzeko ziurtasuna dutenen eta gomendatzeko nolabaiteko probabilitatea dutela uste dutenen artean.

La tasa de recomendación de Euskadi a personas cercanas refleja desde 2019 (99,7%) un tendencia a la baja que llega en 2025 (97,1%) al mínimo de la serie. Una vez más, se observa el intercambio de peso relativo entre quienes tienen la certeza de recomendar y los que tienen cierta probabilidad.


53. grafikoa. Inguruko pertsonen Euskadi gomendatzeari buruzko tasa (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)  
 Gráfico 53. Tasa de recomendación de Euskadi a personas cercanas (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)



2023a (% 53,2) eta 2025a (% 36,5) alderatzean, ikusten da ia 17 puntu jaitsi dela ostatu-plazarik aurkitu ezean **beste helmuga** batera joango lirakeen turisten kopurua; 2017-2016 aldiko edizioak berreskuratu dira (% 35,2).

Al comparar 2023 (53,2%) y 2025 (36,5%), se observa una caída de casi 17 puntos porcentuales en el número de turistas que se habrían desplazado a un **destino alternativo** en caso de no encontrar plaza de alojamiento; recuperando registros de la edición de 2017-2016 (35,2%).

54. grafikoa. Beste helmuga batera joango lirakeen turisten ehunekoa (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010). Baiezko erantzunak  
 Gráfico 54. Porcentaje de turistas que se hubiesen desplazado a otro destino (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010). Respuestas afirmativas



#### 4.- EGITEN DUTEN GASTUA

Eragin ekonomikoa, hau da, turistek egiten duten bidaiak beren bizilekuan zein Euskadin eragindako guztizko gastua **2.295 milioi eurokoa** izan da 2025ean. Horietatik 1.087 milioi (% 47,4) turistek beren bizilekuan egindako gastuei dagozkie, eta 1.208 milioi (% 52,6), berriz, behin Euskadin egonda egindako ordainketei.

Gastu-bolumen horrek % 16ko gorakada dakar 2023an aurreikusten zen (1.982 milioi euro) guztizko gastuarekiko. Edizio hartan honela banatu zen gastua: % 38 jatorrian (754 milioi euro) eta % 62 helmugan (1.228 milioi euro).

Jatorri/helmugako gastuaren egiturazko aldaketa horrek, zalantzarik gabe, ondorio interesgarriak izango ditu Euskadin egindako gastuaren azterketan.

Euskadin ostatu hartu duen turista bakoitzak batez beste 626 € inbertitzen ditu bidaiari, eta, beraz, egonaldiko egun bakoitzeko batez besteko gastua 175 €-koa da. 2023an, pertsona bakoitzeko gastua 612 €-koa zen (166 € pertsonako eta eguneko).

Aztertutako bidaiaren guztizko gastuak garraio-gastuak, ostatu-gastuak eta turistek bizilekuan ordaindutako bestelako jardueren gastuak biltzen ditu kasu askotan. Beraz, baliteke zenbateko batzuek datuen konparagarritasuna aldatu ahal izatea: hori gertatzen da, esaterako, nazioarteko turistek kasuan Euskadira iritsi arte egindako distantziaren eta garraioagatik ordaindutako zenbatekoaren arteko erlazioarekin. Azterketa hori errazteko, Euskadin pertsona bakoitzeko ordaindutako gastuak eta pertsona eta egun bakoitzeko ordaindutakoak hartuko dira kontuan aurrerago.

Euskadin pertsona bakoitzeko ordaindutako batez besteko gastua 329 €-koa da (379 € 2023an). Bestalde, pertsonako egun bakoitzeko gastua (egonaldiaren inpaktua doitzen duen adierazlea) 92 €-koa da (103 € 2023an). Azken bi edizioen artean, Euskadin pertsonako egindako eguneko gastua ia % 15 jaitsi da.

Hala ere, datu horiek aztertzeke datu osagarri bat beharrezkoa da, hau da, jatorrian pertsonako egindako ordainketa eta pertsonako eta eguneko egindako ordainketa alegia.

2025ean pertsonako jatorrian ordaindutako gastua 296,5 eurokoa da (2023an 232,9 euro), eta pertsona bakoitzeko eguneko gastua, berriz, 82,8 eurokoa (63,1 euro 2023an). Horrek esan nahi du, 2023tik 2025era bitartean, aisia-turistek beren bizilekuan pertsona eta egun bakoitzeko egindako gastua % 31 handitu dela.

#### 4.- EL GASTO QUE REALIZAN

El impacto económico, entendiendo como tal el gasto total motivado por el viaje que realizan las y los turistas tanto en su lugar de residencia como en Euskadi, asciende en 2025 a **2.295 millones de euros**. De estos, 1.087 millones (47,4%) corresponden a los gastos realizados por las y los turistas en su lugar de residencia y 1.208 millones (52,6%) a los pagos realizados una vez en Euskadi.

Este volumen de gasto supone un 16% de incremento sobre el gasto total que se estimaba en 2023 (1.982 millones de euros). En aquella edición la distribución del gasto fue: 38% en origen (754 millones de euros) y 62% en destino (1.228 millones de euros).

Este cambio estructural del gasto origen / destino tendrá, sin duda, efectos interesantes en el análisis del gasto realizado en Euskadi.

Cada turista alojado en Euskadi invierte en su viaje 626€ por término medio, resultado un gasto medio por jornada de estancia de 175€. En el año 2023 el gasto por persona ascendía a 612€ (166€ por persona y día).


El gasto total del viaje analizado incluye en muchos casos gastos de transporte, alojamiento y otras actividades abonadas en el lugar de residencia de las y los turistas. Es posible, por tanto, que algunos importes puedan distorsionar la comparabilidad de los datos: como sucede en el caso de las y los turistas internacionales con la distancia recorrida hasta llegar a Euskadi y su relación con el importe abonado por el transporte. Para facilitar este análisis, a continuación, se van a considerar los gastos por persona y los gastos por persona y día, abonados en Euskadi.

El gasto medio por persona abonado en Euskadi es de 329€ (379€ en 2023). Por su parte, el gasto por persona y día (indicador que ajusta el impacto de la estancia) se sitúa en 92€ (103€ en 2023). Entre las dos últimas ediciones, el gasto diario por persona realizado en Euskadi ha disminuido casi un 15%.

No obstante el análisis de estos datos necesita un dato complementario que es el pago realizado en origen por persona y por persona y día.

El gasto abonado en origen por persona en 2025 es de 296,5 euros (frente a los 232,9 de 2023), mientras que el gasto diario por persona asciende a 82,8 euros (63,1 euros en 2023). Esto supone que, entre 2023 y 2025, el gasto por persona y día realizado en el lugar de residencia por parte de turistas de ocio se incrementa en un 31%.


55. grafikoa. **Pertsonako eta eguneko gastuaren bilakaera (zenbat euro batez beste). 2025, 2023, 2019.**  
Gráfico 55. Evolución del gasto por persona y día (euros de media). 2025, 2023, 2019.



**Guztizko gastua** (jatorria eta helmuga) bost kontzeptu nagusitan banatzen da. 2025ean, turistek, batez beste, aurrekontuaren erdia (% 49,7) inbertitzen dute **ostatuan** (% 37,4) eta **mantenuan** (% 12,3); horren ondoren, ia % 30 bideratzen dute **garraiora**. Gainerako gastu-partidei dagokienez, % 15,2 **jarduerak** egiteko erabiltzen da, eta gainerako % 5,3a **erosketak** egiteko.

La distribución del **gasto total** (origen y destino) se divide en cinco conceptos principales. En 2025, las y los turistas invierten, por término medio, la mitad de su presupuesto (49,7%) en **alojamiento** (37,4%) y **manutención** (12,3%); seguidamente, destinan casi un 30% al **transporte**. En cuanto al resto de partidas, un 15,2% se dedica a la realización de **actividades** y el 5,3% restante a **compras**.

56. grafikoa. **Euskadin egindako gastuaren banaketa. 2025**  
Gráfico 56. Distribución de los conceptos del gasto realizados. 2025



**Aurrekontuaren zati bat inbertitzea eragin duten jardueren eta erosketen tipologia**

Turistek ostatu hartutako helmugan egiten dituzten jarduerekin eta erosketekin lotutako gastuei erreparatuta, hainbat turista-profil zehaztu daitezke.

Euskadira iritsitakoan, turisten % 69k pakete turistikotik kanpoko jardueretan gastuak egiten dituzte, horiek kontratatuta dauzkaten edo ez kontuan izan gabe. Gastu hori egiten dutenen batez besteko zenbatekoa 126,2 €-koa da. Gastu-kontzeptu ohikoenak jarduera gastronomikoetan, bisita kulturetan eta dibertsioan egindakoak dira. 2023an, jardueretan gastuak egiten zituzten turisten portzentajea % 76-koa zen, eta batez besteko gastua 106,9 €-koa.


**Tipología de actividades y compras en las que invierten parte de su presupuesto**

Una manera de identificar diferentes perfiles de turistas es en función de sus patrones de gasto en relación con las actividades y compras llevadas a cabo en el destino donde se alojan.

Una vez en Euskadi, el 69% de las y los turistas realizan gastos en actividades fuera del paquete turístico, independientemente de que lo tengan o no contratado. El importe medio del gasto entre quienes lo realizan es de 126,2€. Los conceptos de gasto más frecuentes son los realizados en actividades gastronómicas, visitas culturales y diversión. En 2023 el porcentaje de las y los turistas que realizaban gastos en actividades era del 76% y el gasto medio de 106,9€.

**57. grafikoa. Jarduerei lotutako gastu-kontzeptuak. 2025. Oinarria: egonaldian jardueri lotutako gastuak egin dituzten turistak**

Gráfico 57. Conceptos de gasto en actividades. 2025. Base: turistas que han realizado gastos en actividades durante su estancia




Euskadin ostatu hartzen duten turisten % 40k erosketetan gastuak egin dituzte, batez beste 72,5 € pertsonako. 2023an % 49 ziren, eta batez beste 61 €-ko gastua egin zuten. Erosketak egin dituzten turista gehienek honako partida hauean inbertitzen dute aurrekontua: jantziak, oinetakoak edo osagarriak, produktu gastronomikoak eta oroigarriak.

El 40% de las y los turistas que se alojan en Euskadi realizan gastos en compras por un importe medio de 72,5€ por persona. En 2023 representaban el 49% y realizaban un gasto medio de 61€. Las partidas en las que la mayor parte de quienes realizan compras invierten su presupuesto son: textiles, calzados o complementos, productos gastronómicos y en tercer lugar souvenirs.

**58. grafikoa. Erosketei lotutako gastu-kontzeptuak. 2025. Oinarria: egonaldian erosketak egin dituzten turistak**

Gráfico 58. Conceptos de gasto en compras. 2025. Base: turistas que han realizado compras durante su estancia



### Aurrekontuaren bilakaera

Pertsonako guztizko gastua, jatorrian egindako gastuak eta helmugan egindakoak kontuan hartzen dituen, urteik urtera handituz joan da 2025era arte. 2019an, pertsona bakoitzeko guztizko gastuak pixka bat behera egin zuela ikusten da, baina jaitsiera hori ez da nabaritu pertsonako eta eguneko gastuan, 2017-2016 aldiko 158 €-etatik 2019ko 165 €-etara igo baita. 2023. urtearekin alderatuta, 2025ean pertsona bakoitzeko gastua 13 € pasatxo handitu da.

Turistek Euskadin ordaindutako pertsonako eta eguneko gastua soilik kontuan hartuta, gastu hori handitu egin da urtez urte: 2012ko ia 76 €-etatik 2019ko 120 €-etara. 2023an eta 2025ean beherakada txiki bat izan du, lehen aipatu bezala, jatorrian egindako gastuaren ehuneko handiago batek eraginda.


### Evolución del presupuesto

El gasto total por persona, incluyendo tanto los gastos realizados en origen como los gastos realizados en destino, se ha ido incrementado año a año hasta 2025. En 2019 se advierte un ligero retroceso del gasto total por persona, aunque este descenso no se constata en el gasto por persona y día que aumenta de los 158€ de 2017-2016 a los 165€ de 2019. Con respecto a 2023, en 2025 el gasto por persona se incrementa en algo más de 13€.

Teniendo en cuenta exclusivamente el gasto abonado en Euskadi por las y los turistas por persona y día, este se ha incrementado año tras año de los casi 76€ de 2012 a los 120€ de 2019. En 2023 y 2025 sufre una ligera bajada ocasionada, como se ha comentado anteriormente, por un mayor porcentaje del gasto realizado en origen.

59. grafikoa. Euskadira etorri diren turistek egindako gastuaren zenbatekoak (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)

Gráfico 59. Importes de gasto realizados por las y los turistas que visitan Euskadi (2025, 2023, 2019, 2017-2016, 2014, 2012, 2010)<sup>13</sup>



## 5.- EUSKADIRA ETORTZEN DIREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN PORTAERA BEREIZTEN DUTEN FUNTSEZKO FAKTOREEN ANALISIA

Turisten portaera hainbat ezaugarri bereizgarri zehazten dute: bidaiatzera bultzatu dituzten arrazoiak, norberaren jatorria, bidaiatzeko modua, adina eta, zergatik ez, sexua. Kapitulu honetan, Euskadira aisia-arrazoiengatik etortzen diren emakumeen eta gizonen portaeren, lehenetsun edo balorazioen artean alde nabarmen bat agertzen duten alderdiak ebaluatuko ditugu.

### Euskadiko helmuga turistikoak

Euskadiko helmuga turistikoaren artean turisten banaketa antzekoa den arren, sexua edozein dela ere, ñabardura bereizgarri batzuk hautematen dira. Bilbo da bi sexuen artean alderik handiena duen helmuga (% 36,9 emakumeak eta % 22,5 gizonak). Donostia gizonak dira nagusi: % 29,3 eta % 18,7, hurrenez hurren. Kostaldean, gizonak (% 21,5) emakumeek (% 17,4) baino 4 puntu gehiago dituzte. Gainerako helmuetan aldeak txikiagoak dira.


## 5.- ANÁLISIS DE LOS FACTORES CLAVE QUE DIFERENCIAN EL COMPORTAMIENTO DE LAS MUJERES Y LOS HOMBRES QUE VISITAN EUSKADI

La conducta de las y los turistas suele venir determinada por diferentes rasgos característicos: las motivaciones que les han inducido a viajar, su propia procedencia, la forma social de viajar, la edad y, por qué no, el sexo. En este capítulo se va a realizar una evaluación de aquellos aspectos en los que se observa una diferencia significativa entre las conductas, preferencias o valoraciones declaradas por las mujeres y hombres que visitan Euskadi por motivaciones de ocio.

### Destinos turísticos de Euskadi

Aunque la distribución de las y los turistas entre los diferentes destinos turísticos de Euskadi es semejante, independientemente de su sexo, si se aprecian ciertos matices diferenciadores. Destaca Bilbao como el destino donde mayor diferencia hay entre ambos sexos (36,9% de mujeres y 22,5% de hombres). Los hombres predominan porcentualmente en Donostia/San Sebastián: 29,3% frente a 18,7%. En la costa los hombres (21,5%) tienen 4 puntos porcentuales más que las mujeres (17,4%). En el resto de los destinos las diferencias son menores.

60. grafikoa. Turisten banaketa, helmuga turistikoaren eta sexuaren arabera. 2025  
 Gráfico 60. Distribución de las y los turistas por destinos turísticos según sexo. 2025



## Nolakoak dira Euskadi bisitatzeko dutenak?

Jatorriari dagokionez, merkatu nazionaletik Euskadira etorritako emakumeen kopurua handiagoa da gizonena baino (% 53,4 eta % 50,0, hurrenez hurren), turistak bizi diren lekuen arabera azterketa bereiziago bat eginez gero, ordea, apenas dago alde esanguratsurik.

## Cómo son quienes visitan Euskadi


En cuanto al origen, el mercado nacional tiene mayor peso entre las mujeres que visitan Euskadi que entre los hombres (53,4% y 50,0% respectivamente), aunque en el análisis más desagregado de los lugares donde residen las y los turistas apenas muestra diferencias significativas.

Adina ez da bereizi beharreko elementua Euskadi bisitatzan duten emakumeen eta gizonen artean. Euskadira etortzen diren emakumeen % 31k 40 urte baino gutxiago ditu, eta proportzio hori % 27ra iristen da gizonen artean. Kontrako muturrean, senior turismoak (55 urte eta gehiagokoak) gizonen % 35 eta emakumeen % 31 hartzen ditu, eta alde horren arrazoi nagusia 55-64 urte bitarteko tartean gizonen intzidentzia emakumeena baino handiagoa izatea da.

La edad no resulta un elemento a diferenciador entre las mujeres y los hombres que visitan Euskadi. Mientras el 31% de las mujeres que visitan Euskadi tiene menos de 40 años, esta proporción alcanza el 27% entre los hombres. En el extremo contrario, el turismo senior (de 55 y más años) representa el 35% de los hombres y el 31% de las mujeres siendo la principal causa de esta diferencia la mayor incidencia de hombres que de mujeres en la franja de entre 55 y 64 años.


**61. grafikoa. Euskadira etortzen diren turistak adin-tarteak, sexuaren arabera. 2025**

Gráfico 61. Estratos de edad de las y los turistas que visitan Euskadi según sexo. 2025



**62. grafikoa. Senior turismoaren proportzioa, adin-tartearen eta sexuaren arabera. 2025**

Gráfico 62. Proporción del turismo senior según franjas de edad según sexo. 2025




Bestalde, familia-turismoaren (hots, adingabeekin bidaiatzen duten pertsona taldeak) azterketan, gizonen kuota (% 14,1) zertxobait handiagoa da emakumeena baino (% 13,5), pisu handiagoa dutelako hainbat adingabe talderekin egindako familia-bidaietan.

Por otro lado, en el análisis del turismo familiar, entendiendo como tal los grupos de personas que viajan con menores de edad, la cuota de hombres (14,1%) supera ligeramente a la de mujeres (13,5%) por el mayor peso de aquellos en los viajes familiares con varios grupos de menores.

**63. grafikoa. Familia-turismoaren proportzioa, adin-tartearen eta sexuaren arabera. 2025**

Gráfico 63. Proporción del turismo familiar según franjas de edad según sexo. 2025




### Norekin egiten dute bidaia?

Bidaiatzeko modu sozialari dagokionez, badirudi emakumeek gizonak baino nahiago dutela pertsona helduek soilik osatutako taldeetan egin (ehuneko 5etik gorako aldea). Gizonak (% 58,4) 3 puntu baino zertxobait gehiagotan gaitzen dute emakumeen (% 55,1) ehuneko bikote-bidaietan. Gizonak nahiago dituzte gainerako bidaia-formatuak, baina ehunekoak pixka bat baino ez dira handiagoak.

### Con quién comparten su viaje

En cuanto a la forma social de viajar, las mujeres parecen decantarse más que los hombres en hacerlo en grupos de sólo personas adultas (algo más de 5 puntos porcentuales de diferencia). Los hombres (58,4%) supera en algo más de 3 puntos a las mujeres (55,1%) en los viajes en pareja. El resto de los formatos de viaje son preferidos por los hombres, pero con porcentajes ligeramente superiores.

64. grafikoa. Bidaia-taldeko kideak, bidaia norekin egiten den kontuan hartuta eta sexuaren arabera. 2025  
 Gráfico 64. Componentes del grupo de viaje, en función de la forma social de viajar según sexo. 2025




### Bidaia antolatzeko eta aurrez erreserbatzeko erabilitako informazio-bideak

Gizonen eta emakumeen informazio-iturri nagusiak hurbileko pertsonak eta Internet dira, bai bidaiaren helmuga erabakitze garaian, bai bidaia antolatzeko informazioa bilatzeko garaian. Hala ere, emakumeek joera handiagoa dute bidaia antolatzeko informazio-bide gehiago erabiltzeko.

### Canales de información para la organización y reserva previa al viaje

Las principales fuentes de información para hombres y mujeres, tanto a la hora de inspirarse para decidir el destino de su viaje como a la de buscar información con la que organizarlo, son las personas cercanas e Internet. No obstante, hay una mayor predisposición por parte de las mujeres a hacer un mayor uso de diferentes canales de información para la organización del viaje.

